



**EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO
POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN
BATZORDEA
KONTROL ETA GARDENTASUN
BATZORDEAREN TXOSTENA. 4-2023
ESPEDIENTEA**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 8a

1. Kasuaren inguruabarrak

- 2023/06/01a. 2023ko ekainaren 1ean, 10:00ak eta 10:44ak bitartean, Vitoria-Gasteizko Becerro Bengoa kalean “Ertzainak borrokan” kolektiboak deitutako protesta-ekitaldi bat egin zen. Ekitaldi horretan manifestariak elkarretaratzea egin zuten, hasieran espaloian eta gero Eusko Legebiltzarraren eraikinaren sarrerako atearen parean dagoen galtzadaren zati batean.

- 2023/06/01a. Egun berean, Segurtasuneko sailburuordeak aginduta, Barne Arazoetarako Burutzari eskatu zitzaion elkarretaratzearen garapena eta jarduketa poliziala ikertzeko, diziplinazko-ahala erabili behar zen erabaki aurretik (APAPELen 55. art.)

- 2023/06/02a. Egun horretan eta hurrengoetan, gizarte-hedabideek – ETB, TV1, Radio Euskadi, SER, Onda Vasca, EFE, El Correo, El Diario.es, Deia, Berria, Naiz – elkarretaratzean gertatutako intzidente batzuei buruz informatu zuten. Gehien errepikatzen ziren titularrek azaltzen zuten “Ertzainak borrokan” kolektiboak, ordainsariak hobetzeko eskatzeko, Eusko Legebiltzarraren aurrean egindako elkarretaratzeak tranbiaren zirkulazioa ordubetez eten zuela eta Herritarren Segurtasunerako Zerbitzuko agente uniformatuek ez zutela hori galarazteko ezer egin. Hedabide batzuek erakutsitako irudi batean Herritarren Segurtasunerako Zerbitzuko agenteak manifestarien alde txalo egiten agertzen dira, elkarretaratzea amaitutakoan, eta manifestari bat eta agente bat elkar besarkatzen, ekitaldia amaitutzat emandakoan.

**COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA
DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO**

**INFORME DE LA COMISIÓN DE CONTROL Y
TRANSPARENCIA. EXPEDIENTE 4-2023**

Vitoria-Gasteiz, 8 de marzo de 2024

1. Circunstancias del caso

- 01/06/2023. El día 1 de junio de 2023, entre las 10:00 y las 10:44 horas, tuvo lugar en la calle Becerro Bengoa de Vitoria-Gasteiz un acto de protesta convocado por el colectivo “Ertzainas en lucha”. El acto consistió en una concentración de los manifestantes, inicialmente en la acera y, posteriormente, en una parte de la calzada que da frente a la puerta de entrada al edificio del Parlamento Vasco.

- 01/06/2023. En el mismo día, por Orden del Ilmo. Sr. Viceconsejero de Seguridad se interesa de la Jefatura de Asuntos Internos la realización de una investigación sobre el desarrollo de la concentración y la actuación policial, previa al eventual ejercicio de la potestad disciplinaria (art. 55 LPACAP).

- 02/06/2023. En este día y en los siguientes, los medios de comunicación social –ETB, TV1, Radio Euskadi, SER, Onda Vasca, EFE, El Correo, El Diario.es, Deia, Berria, Naiz- informan sobre determinados incidentes acaecidos durante el desarrollo de la concentración. Los titulares más reiterados informan que la concentración de “Ertzainas en lucha” frente al Parlamento Vasco ha interrumpido la circulación del tranvía durante una hora para exigir mejoras salariales sin que los agentes uniformados del Servicio de Seguridad Ciudadana hicieran nada para impedirlo. Varios medios recogen la imagen de los aplausos dirigidos a los manifestantes, al término de la concentración, por los agentes del Servicio de Seguridad Ciudadana, así como un abrazo que tuvo lugar entre uno de los manifestantes y uno



- 2023/06/02a. 2023ko ekainaren 2an Eusko Legebiltzarrean egindako Gobernuaren kontrol-saioan, Euskal Herria Bildu legebiltzar taldeak Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuari galdetu zion manifestariak eta agenteek elkarretaratzean izandako jokabideaz.

- 2023/06/23a. Segurtasuneko sailburuordeak ebazpen bat eman zuen, falta arinagatik zazpi diziiplina-prozedura irekitzeko eta horiek izapidetzeko instruktorea izendatzeko.

- 2023/07/14a. Segurtasuneko Sailburuordetzaren Barne Arazoetarako Burutza Operatiboak txosten hau eman zuen: "Ertzainak borrokan" kolektiboak Gasteizen 2023ko ekainaren 1ean egindako elkarretaratzeari buruzko ikerketaren ondorioak.

- 2023/07/22a. Instruktoreak hasitako zazpi diziiplina-prozeduratan ebazpen-proposamena eman zuen.

- 2023/08/04a. Segurtasuneko sailburuordeak zazpi diziiplina-prozedura horietatik seitan ebazpena eman zuen, falta arin bat egiteagatik ohartarazpen-zehapena ezarriz.

- 2023/12/01a. Segurtasuneko sailburuordeak irekitako zazpigarren diziiplina-prozedurari buruzko ebazpena eman zuen, prozedura iraungi dela eta prozedura artxibatuko dela deklaratu.

2. Jarduera hauek egin dira

- 2023/10/05a. Eusko Jaurlaritzaren Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeko buruari ofizio bat igorri zion proposamen hau jakinarazteko: Batzordeak egokitzat joz gero, Segurtasuneko Sailburuordetzaren Barne Arazoetarako Burutzak emandako txostenean (horrekin batera bidaltzen da) aipatzen diren jokabideak ikertzeko eta, hala badagokio,

de los agentes inmediatamente después de que se diera por concluido el acto.

- 02/06/2023. En la sesión del control del Gobierno celebrada el día 2 de junio de 2023 en el Parlamento Vasco, el grupo parlamentario Euskal Herria Bildu pregunta al Sr. Vicelehandakari Primero y Consejero de Seguridad sobre la conducta de los manifestantes y de los agentes durante el desarrollo de la concentración.

- 23/06/2023. Se dicta resolución por el Ilmo. Sr. Viceconsejero de Seguridad disponiendo la incoación de siete procedimientos disciplinarios por falta leve, con designación de Instructor para su tramitación.

- 14/07/2023. La jefatura operativa de Asuntos Internos de la Viceconsejería de Seguridad emite informe con el título de "Conclusiones sobre la investigación realizada con motivo de la concentración "Ertzainas en lucha" de 1 de junio de 2023 en Gasteiz".

- 22/07/2023. Por el Sr. Instructor se dicta propuesta de resolución en los siete procedimientos disciplinarios incoados.

- 04/08/2023. Por el Sr. Viceconsejero de Seguridad se dicta resolución en seis de los siete procedimientos disciplinarios incoados con imposición de sanción de apercibimiento por la comisión de falta leve.

- 01/12/2023. Por el Sr. Viceconsejero de Seguridad se resuelve sobre el séptimo de los procedimientos disciplinarios incoados con declaración de la caducidad y el archivo del mismo.

2. Actuaciones realizadas

- 05/10/2023. El Excmo. Sr. Vicelehandakari Primero y Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco dirige oficio por el que se pone en conocimiento de la Presidencia de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco (CCTPPV) la propuesta de que, si la Comisión lo estima conveniente, proceda al



egokitzat jotzen dituen neurriak proposa ditzan edo gomendioak eman ditzan.

- 2023/10/09a. EAEPKGBek onartu zuen Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak egindako enkargua eta erabaki zuen Barne Arazoetarako Burutzak egindako dokumentu honetan jasota dauden jarduketak ikertzea: "Ertzainak borrokan" kolektiboak 2023ko ekainaren 1ean egindako elkarretaratzeari buruzko ikerketaren ondorioak.

- 2023/10/09a. EAEPKGBek hauek eskatu zizkion Barne Arazoetarako Buru Operatiboari:

a) 2023ko ekainaren 1eko kontzentrazioari buruz argitaratu diren berriak, bideoak eta bestelako informazioak jasotzen dituen prentsa-dosierraren kopia sinplea bidaltzeko.

b) Irekitako diziplina-espeditenteen egoerari buruz informatzeko eta, hala badagokio, hartutako amaierako ebazpenei buruz ere bai.

- 2023/10/18a. EAEPKGBek Ertzaintzaren Zuzendaritzatik jaso zuen Barne Arazoetarako Burutzari eskatutako informazioa, baita eskatutako dokumentazioa barruan daukan memoria elektronikoa ere.

- 2023/11/22a. EAEPKGBek erabaki zuen Segurtasuneko sailburuordeari dokumentu hauek bidaltzeko eskatzea:

a) Izapidetu diren zazpi diziplina-prozeduretako bakoitzean eman diren ebazpen administratiboen kopia osoak.

b) Eusko Legebiltzarreko segurtasun-kamerek jasotako dokumentazio bideografikoaren kopia, hedabideetan agertu diren argazkiak eta bideoak, Barne Arazoetarako Burutza Operatiboak emandako txosteneko bigarren atalean (6. orrian, azken paragrafoa) aipatzen direnak, hain zuzen.

estudio de las conductas a las que se hace referencia en el informe emitido por la Jefatura de Asuntos Internos de la Viceconsejería de Seguridad que se acompaña y, en su caso, formule las recomendaciones o proponga las medidas que considere.

- 09/10/2023 La CCTPPV acepta el encargo interesado por el Excmo. Sr. Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad y acuerda proceder al estudio sobre las actuaciones reflejadas en el documento "Conclusiones sobre la investigación realizada con motivo de la concentración "Ertzainas en lucha" de 1 de junio de 2023", formulado por la citada Jefatura de Asuntos Internos.

- 09/10/2023. La CCTPPV interesa del Sr. Jefe Operativo de Asuntos Internos:

a) La remisión de copia simple del dossier de prensa con las noticias, videos y demás información publicada sobre la concentración de 1 de junio de 2023.

b) Se informe sobre el estado de los expedientes disciplinarios incoados y, en su caso, sobre las resoluciones finales adoptadas.

- 18/10/2023. La CCTPPV recibe de la Dirección de la Ertzaintza la información solicitada de la Jefatura de Asuntos Internos, así como una memoria electrónica con la documentación interesada.

- 22/11/2023. La CCTPPV adopta acuerdo por el que se interesa del Ilmo. Sr. Viceconsejero de Seguridad la remisión de la siguiente documentación:

a) Copias íntegras de las resoluciones administrativas dictadas en cada uno de los siete procedimientos disciplinarios tramitados.

b) Copia de la documentación videográfica obtenida por las cámaras de seguridad del Parlamento vasco, fotografías y vídeos aparecidos en los medios de comunicación, a la que se refiere el Apartado Segundo (folio 6, último



- 2023/01/04a. EAEPKGBek eskatutako dokumentazioa jaso zuen bide elektronikotik.

3. Jarduketa polizialaren kontrola ebaluatzeko alderdi garrantzitsuak

Ertzaintzaren Barne Arazoetarako Burutzak egindako barruko ikerketan hiru kontu garrantzitsu azpimarratzen ditu “Ertzainak borrokan” plataformak deitutako 2023ko ekainaren 1eko elkarretaratzetik erator litezkeen erantzukizunak aztertzeko:

a) Vitoria-Gasteizko Ertzain-etxeko Unitateko Burutzak elkarretaratzea zaintzeko dispositibo poliziala ondo planifikatu eta diseinatu zuen zehaztu behar da.

b) Elkarretaratzean zehar ertzain manifestarien jokabide edo jarduera batzuek diziplina-gaitzespena eragin dezaketen edo herritarren segurtasuna babesteko 4/2015 Legearen arau-hausteak izan daitezkeen zehaztu behar da.

c) Ekitaldian zehar ordena publikoa zaintzeko dispositiboaren parte ziren Ertzaintzaren Herritarren Segurtasunerako agente uniformatuek diziplina-gaitzespena edo beste mota batekoa eragin dezaketen jokabideak izan eta jarduerak burutu zituzten zehaztu behar da.

Ikerketaren emaitzak ondorio negatiboak eman ditu lehen bi galderei dagokienez eta positiboa hirugarrenari dagokienez.

1^a. Dispositibo poliziala diseinatzeari eta aurrera eramateari dagokienez, Barne Arazoetarako Burutzaren txostenak, burututako froga-jarduera ikusita, ondorioztatzen du elkarretaratzearen garapenerako segurtasun-operatiboaren planifikazioa eta antolaketa “ona izan zela eta horrelako jarduketa polizialean espero daitekeenera egokitu zela”. Batzorde honek horri buruz ez du inolako eragozpenik adierazi behar.

párrafo) del informe emitido por la Jefatura Operativa de Asuntos Internos.

- 04/01/2023. La CCTPPV recibe por vía electrónica la documentación interesada.

3. Cuestiones relevantes para la evaluación sobre el control de la actuación policial.

La investigación interna llevada a cabo por la Jefatura Operativa de Asuntos Internos de la Ertzaintza identifica tres cuestiones relevantes para el análisis de las responsabilidades que se hubieran podido derivar con ocasión del desarrollo de la concentración, convocada por la plataforma “Ertzainas en lucha”, celebrada el 1 de junio de 2023:

a) Determinar si la Jefatura de Unidad de la Comisaría de Vitoria-Gasteiz planificó y diseñó correctamente el dispositivo policial que dio cobertura a la concentración.

b) Establecer si, durante el desarrollo de la concentración, los ertzainas manifestantes llevaron a cabo conductas o actuaciones que pudieran ser merecedoras de reproche disciplinario o de cualquier otra índole por infracción de la Ley Orgánica 4/2015, de protección de la seguridad ciudadana.

c) Establecer si, durante la celebración del acto, los agentes uniformados de Protección Ciudadana de la Ertzaintza que formaban parte del dispositivo de preservación del orden público llevaron a cabo conductas o actuaciones que pudieran ser merecedoras de reproche disciplinario o de cualquier otra índole.

El resultado de la investigación ofrece conclusiones negativas respecto de las dos primeras cuestiones y positiva respecto de la tercera.

1^a. En relación con el diseño y ejecución del dispositivo policial, el informe de la Jefatura de Asuntos Internos, a la vista de la actividad probatoria llevada a cabo, concluye que la planificación y organización del operativo de



2^a. Manifestarien jokabideari buruz, txostenean jasotzen da elkarretaratzea zaintzeko eta kontrolatzeko Vitoria-Gasteizko Ertzain-etxeke Herritarren Segurtasunerako Zerbitzuko zazpi poliziekin segurtasun-lerro bat eratu zela, Eusko Legebiltzarrerako sarbidea dagoen espaloian; eta bitartean Brigada Mugikorreko kideak prebentzio-lanetan ibili zirela hortik hurbil (50 metro). Horrez gain, jasotzen da, operatiboaren diseinuaren arabera, Becerro Bengoa kaleko espaloien ertzean zehar, elkarretaratzea han egin baitzen, Eusko Legebiltzarrerako sarbidea dagoen espaloien parean, zinta polizial bat zabaldu zela espaloi hori tranbiaren errailak dauden galtzadatik banatzeko. Zinta horren helburua zen ekiditea elkarretaratzean parte hartzen ari zirenak tranbiaren errailak dauden galtzadaren ondo-ondora sartzea.

Helburu hori bete gabe geratu zen 10:18ak inguruan, elkarretaratzearen lehen 15 minutuak igarota; izan ere, segurtasun-lerroa osatzen zuten agenteek berariaz eskatuta, elkarretaratutakoek betetzen zuten eremua zabaldu zen tranbiaren errailak dauden galtzada eta ibilgailuen zirkulaziorako galtzada banatzen dituen erdibitzaileraino.

Horrela jasota dago txostenean eta, beraz, egiaztatutzat jotzen da tranbiaren zirkulazioa eteteko erabakia Vitoria-Gasteizko Ertzain-etxeke buruak hartu zuela. Erabaki hori hartzeko arrazoia izan zen tranbiak zirkulatzen jarraitzea berehala arrisku bihur litekeela elkarretaratutakoen osotasun fisikorako; izan ere, hainbeste ziren – 1.500 inguru- non manifestazioa egiteko prestatutako espaloien azalera txiki geratu baitzen.

Manifestariak elkarretaratzean zehar izandako jokabideari dagokionez, azterlan honen eremuan,

seguridad para el desarrollo de la concentración “fue correcta y ajustada a lo esperable para este tipo de actuaciones policiales”. Esta Comisión no tiene que manifestar ninguna objeción respecto de este extremo.

2^a. En cuanto a la conducta de los manifestantes, se recoge en el informe que para la vigilancia y control de la concentración se formó una línea de seguridad, integrada por siete policías del servicio de Seguridad Ciudadana de la Comisaría de la Ertzaintza de Vitoria-Gasteiz que se situó en la acera que da acceso al Parlamento Vasco; en tanto que los componentes de la Brigada Móvil permanecieron en prevención a escasa distancia (50 metros). Señala, así mismo, que, de acuerdo con el diseño del operativo, a lo largo del borde de la acera de la calle Becerro Bengoa en la que se desarrolló la concentración, frente a la acera de acceso al Parlamento Vasco, se extendió una cinta policial de separación respecto de la calzada por donde discurren las vías del tranvía. Con este indicativo se perseguía evitar que las personas que participaran en la concentración accedieran a la parte inmediata de la calzada por donde discurren las vías del tranvía.

Este objetivo se vio quebrado sobre las 10:18 horas, transcurridos los 15 primeros minutos de la concentración, ya que, por indicación expresa de los agentes integrantes de la línea de seguridad, se amplió el área ocupada por los concentrados hasta la mediana que separa la parte de la calzada por la que discurren las vías del tranvía de la otra parte de la calzada que se destina a la circulación de vehículos.

Esta circunstancia se recoge en el informe en el que se tiene por acreditado que la decisión de suspender la circulación del tranvía fue adoptada por el Jefe de la Comisaría de la Ertzaintza de Vitoria-Gasteiz. Se ofrece como motivo de dicha decisión el riesgo inminente que comportaba la circulación del tranvía para la integridad física de los concentrados, puesto que el número de estos –aproximadamente, 1.500– llegó a desbordar la superficie de la acera habilitada para el desarrollo de la manifestación.



Barne Arazoetarako Burutzaren ikerketaren ondorioa da jasotako dokumentaziotik eta deklarazioetatik ez dagoela ondorioztatzerik elkarretaratzea deitu zutenek edo parte hartu zutenek tranbiaren zirkulazioa mozteko asmoa zutenik, eta tranbiaren errailak dauden galtzadako zatia okupatzeko asmorik ere ez. Txostenean jasotakoaren arabera, “(...) elkarretaratzearen lehen 15 minutuetan, parte hartzaileak espaloian egon ziren, eta, lehen azaldu den bezala, Unitateko buruak, harrapaketa-arriskua zegoela ikusita, baimendu eta onartu zuen elkarretaratutakoek tranbiaren errailak okupatzea. Hori dela eta, ez dago jokabide hori HSBLOren arau-haustetzat hartzerik”.

Batzorde hau bat dator horrekin.

3^a. Azken finean, Barne Arazoetarako Unitatearen ikerketaren emaitzen artean, azterlan honetarako garrantzitsua den kontu bakarra agente uniformatuen jokabidea da, hain zuzen, segurtasun-lerroa osatzen zuten zazpi ertzainen jokabidea, elkarretaratzea amaitu baino apur bat lehenago manifestariekin batera txalo egin zutelako eta ekitaldia amaitzean agente uniformatuetako batek eta manifestari batek elkar besarkatu zutelako.

Barne Arazoetarako Burutzak aipatu du – eta Batzorde honek egiaztatu ahal izan du “8.D Principal” eta “9.D Administrativo” kamerei dagozkien bideoak ikusi dituelako – “(...) 10:44ak inguruan, elkarretaratutakoak ekitaldia amaitutzat emateko txaloka hasi zirenean, segurtasun-lerroan zeuden zazpi ertzain uniformatu ere txaloka hasi zirela eta jokabide horren berri eman zutela hedabide batzuek”. Gertaera horri buruz, Barne Arazoetarako Burutzak uste du zazpi ertzain horien jokabidea diziplina arloko araudiaren urraketa izan zitekeela, horregatik informatu zitzaion Segurtasuneko sailburuordeari eta horrek egokitzen jo zuen horietako bakoitzari diziplina-prozedura bat irekitzea falta arin bategatik.

En cuanto a la conducta de los manifestantes durante el tiempo de desarrollo de la concentración, en lo que interesa a este estudio, la investigación de la Jefatura de Asuntos Internos concluye que, de la documentación y las declaraciones recogidas, no se desprende que la voluntad de los convocantes ni de los congregados fuera la de proceder al corte de la circulación del tranvía; ni, tampoco, la de ocupar la parte de la calzada por donde discurren las vías de este. Por el contrario, se recoge en el informe que “(...) de hecho, durante los primeros 15 minutos de la concentración, los reunidos permanecieron en la acera, dándose la circunstancia, como se ha expuesto anteriormente, que fue el Jefe de Unidad, a la vista del riesgo de atropello existente, quien autorizó y permitió la ocupación de los carriles del tranvía por parte de los concentrados. Ante estos condicionantes, en ningún caso cabe calificar esta conducta de infracción a la LOPSC”.

Esta Comisión comparte la anterior apreciación.

3^a. En definitiva, del resultado de la investigación de Asuntos Internos, la única cuestión relevante para este estudio es la referida a las conductas llevadas a cabo por los agentes uniformados, en concreto, la realizada por los siete ertzainas que integraban la línea de seguridad, consistente en aplaudir junto con los manifestantes en el momento inmediatamente anterior al final de la concentración, así como el abrazo que tuvo lugar entre uno de los agentes uniformados y un manifestante, también a la conclusión del acto.

Se señala por la Jefatura de Asuntos Internos –y ha sido comprobado por esta Comisión mediante el visionado de los vídeos editados correspondientes a las cámaras “8.D. Principal” y “9.D. Administrativo”– que “(...) a las 10:44 horas, cuando los concentrados comenzaron a aplaudir para dar por finalizado el acto, siete ertzainas de uniforme que se hallaban en la línea comenzaron también a aplaudir, proceder del que se hicieron eco varios medios de comunicación”. En relación con este hecho, la Jefatura de Asuntos Internos estima que el proceder de esos siete ertzainas “pudo haber contravenido la normativa en materia



Azkenik, txostenean jasotzen da “(...) hedabideetan agertutako beste irudietako batek gertaerari buruzko polemika apur bat piztu zuela; 10:45ak inguruan segurtasun-lerroko ertzain uniformatu batek elkarretaratutako bati eskua eman baitzion eta pankarta jasotzen ari zen pertsonarengandik besarkada bat jaso baitzuen”. Gertaera horri dagokionez, txostenean hau ondorioztatzen da: “(...) grabazioak ikusi ondoren, hor ikusten baita ekintza osoa eta pausarik gabe, ondorioa da elkar ezagutzen duten bi pertsonen arteko agur atsegin eta natural bat baino ez dela eta azpimarratu behar dela behin ekitaldia amaituta gertatu zela”.

EAEPKGBek, hain zuzen, bi jokabide horiek aztertuko ditu.

4. Herritarren Segurtasunerako Zerbitzuko agenteen jokabidea ebaluatzea neutraltasun-eta objektibotasun-printzipioak bete beharraren ikuspuntutik.

4.1 Aurretikoa

Txosten honen edukia mugatu behar da EAEPKGBi legez emandako eginkizun honetara: Batzorde horrek indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen (EAEPLTB) 19.1 artikuluan adierazitako erakundeek eskatuta, Ertzaintzaren barruko jokabideak ikertzea, baldin eta horrek benetako kezka sortzen badu, herritarren konfiantza kaltetu dezakeelako (EAEPLTBren 17.2 art.).

Horiek horrela, EAEPKGBen habilitazioa aktibatuko da, jokabide edo jardunbide polizialak kalte ditzakeenean “legitimitatea eta herritarrek polizia-jardunaren gaineko kontrolen neutraltasunean eta objektibotasunean duten konfiantza” (EAEPLTBren 17.1 art.).

disciplinaria, motivo por el cual se informó al Viceconsejero de Seguridad, quien estimó conveniente la apertura, a cada uno de ellos, de un procedimiento disciplinario por falta leve”.

Por último, se recoge en el informe que “(...) otra de las imágenes aparecidas en los medios de comunicación que causó cierta polémica sobre lo sucedido, cuál fue, lo acontecido sobre las 10:45 horas, cuando un ertzaina uniformado de los que formaban parte de la línea de seguridad dio la mano a uno de los concentrados y recibió un breve abrazo de la persona que estaba recogiendo la pancarta”. Respecto de este hecho, se concluye en el informe que, “(...) una vez visionadas las grabaciones, donde se observa la acción completa y sin pausas, se llega a la conclusión de que no es más que un saludo cordial y natural entre dos personas que se conocen, acontecido, cabe destacar, una vez que el acto ya hubo finalizado”.

Sobre estas dos conductas se va a centrar el análisis de la CCTPPV.

4. Evaluación de la conducta de los agentes del Servicio de Seguridad Ciudadana en relación con la supeditación a los principios de neutralidad y objetividad.

4.1 Previo

El contenido del presente informe debe atenerse al ámbito de la atribución legalmente conferida a la CCTPPV para el estudio, a solicitud de las instituciones referidas en el art. 19.1 de la vigente Ley de Policía del País Vasco (TRLPPV), de cualquier conducta en el seno de la Ertzaintza sobre la que exista seria preocupación por el impacto que haya podido producir en la confianza de la ciudadanía (art. 17.2.a) del TRLPPV).

Así, la habilitación de la CCTPPV se activa cuando la actuación o conducta policial considerada sea susceptible de producir un debilitamiento en “la legitimidad y confianza de la ciudadanía en la neutralidad y objetividad de los controles sobre la actividad policial” (art. 17.1 del TRLPPV).



Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen Kode Deontologikoak ezartzen du (EAEPLTBen 24.1 art.) poliziakideen jokabidea erabat izango dela politikoki neutrala eta inpartziala; eta jarduketa objektiboaren kanpoko adierazlea inpartziala izate hori da, hain zuzen.

Aurreko hori Espainiako Konstituzioaren 103.1 eta 103.3 artikuluetan jasotako printzipioekin lotuta egoteaz gain, printzipio deontologiko horien (neutraltasuna, objektibotasuna/inpartzialtasuna) arau-aurrekaria Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legean (EPOE) ere jasota dago. EPOEren aurreikuspenak autonomia erkidego guztietako enplegatu publikoei aplikagarri zaizkie, Lege horren azken xedapenetako bigarrenean ezarritakoaren arabera.

EPOEren 52. artikulua ezartzen du langile publikoek arretaz bete beharko dituztela esleitura dituzten zereginak, eta horrek esan nahi du neutraltasun- eta objektibotasun-printzipioen arabera jardun behar dutela.

Eginkizun publikoak betetzean, neutraltasun-printzipioa (ideologikoa, politikoa, morala, erlijiosoa...) lotuta dago pluralismoak legitimitate demokratikoaren elementu estruktural gisa daukan balio konstituzionalaren bermearrekin. Neutraltasun-printzipioak ezartzen dio enplegatu publikoari autolimitazioaren betebeharra, bere jardun profesionalean ez dezala jarrera hartu egoera batean gatazkan dauden aukeren artean.

Halaber, EPOEren 53.2 artikulua objektibotasun-printzipio etikoa— herritarren interes orokorrak betetzea xede izango duen jardun gisa ulertuta, enplegatu publikoak pentsatzen edo sentitzen duena alde batera uzten duena – enplegatu publikoen eta herritarren arteko harremanetako inpartzialtasunarekin lotzen du, eta horretan eraginkorrak izateak Administrazio onaren irudia emango du. Enplegatu publikoen jarduna kontsiderazio objektiboetan oinarrituta dagoela ulertuko da kontsiderazio horiek Administrazio onaren irudi ona emateko ezinbestekoa den inpartzialtasunari begira daudenean.

El Código Deontológico de la Ley de Policía del País Vasco (art. 24.1 del TRLPPV) establece que la actuación profesional de las personas que la integran está sujeta al deber ético de la neutralidad y la imparcialidad; siendo así que el deber de imparcialidad opera como la expresión externa de la actuación objetiva.

Además de su vinculación con los principios consagrados por el art. 103.1 y 103.3. CE, el antecedente normativo de los señalados principios deontológicos -neutralidad, objetividad/imparcialidad- se recoge en la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (EBEP). Las previsiones del EBEP son de aplicación a las personas empleadas públicas de todas las comunidades autónomas en los términos establecidos en su Disposición final segunda.

El art. 52 del EBEP acoge la neutralidad y la objetividad como principios de conducta que definen la diligencia exigible de los empleados públicos en el desempeño de las tareas que tengan asignadas.

El principio de neutralidad (ideológica, política, moral, religiosa...) en el ejercicio de las funciones públicas es deudor de la garantía del valor constitucional del pluralismo como elemento estructural de la legitimidad democrática. La neutralidad impone a la persona empleada pública el deber de autolimitación dirigido a evitar que, en su actuación profesional, muestre un posicionamiento personal con respecto a las opciones en conflicto presentes en la situación sobre la que aquella se proyecta.

A su vez el art. 53.2 EBEP articula el principio ético de la objetividad –entendida como la actuación dirigida a la satisfacción de los intereses generales de la ciudadanía ajena a la propia manera de pensar o de sentir del empleado público- con la exigencia de la imparcialidad que opera en la relación de los empleados públicos con la ciudadanía y cuya eficacia define la imagen de la buena Administración. La actuación de las personas empleadas públicas se entenderá fundada en consideraciones objetivas cuando estas consideraciones se orienten hacia la



4.2 Segurtasun-lerroko agenteek manifestazio-eskubideaz baliatzen ari ziren elkarretaratutakoek hasitako txaloetan parte hartzea Euskal Autonomia Erkidegoko jardun polizialaren neutraltasun-beharraren aurkako jokabidea da.

RAE hiztegiak ematen duen definizioaren arabera (euskarara itzulita) “txalo egitea” bere lehen adieran txaloak jotzea da onespena edo gogoberotasuna adierazteko; bigarren adieran da hitzez edo beste demostrazio batzuen bidez norbait edo zerbait goraiatzea. Berdina da Diccionario de uso del español (María Moliner) hiztegiak ematen duen “txalo egitearen” definizioa (euskarara itzulita), hau da, zerbait edo norbait goraiatzea edo onestea.

Manifestariak, 2023ko ekainaren 1ean, Eusko Legebiltzarraren aurrean egin zuten elkarretaratzean lehen lerroan neurri handiko bi pankarta erakutsi ziren, eta horietan “Ertzainak borrokan” plataformak deitutako protestaren helburua zehazten zen: “Sin acuerdo regulador digno no hay Tour - Hitzarmen duinik gabe ez dago Tourrik!”, “12 años sin convenio Ertzainas en lucha - Sans convention collective convenible, pas du Tour de France!”.

Gutziz zentzuzkoa da ulertzea elkarretaratzearen azken minutuetako txaloen bidez manifestariak adierazten zituztela egindako protestarekiko atxikimendua eta deialdi horren arrakastak eragiten zizkien poz-sentimenduak. Era berean, agente uniformatuak denbora-tarte labur batez manifestazio-eskubideaz baliatzen ari ziren pertsonen zuzendu zizkieten txaloek esanahi bera izan zuen, ez besterik, hau da, protesta-ekitaldi horren aldeko zein haren helburuen aldeko onespena eta goraiapena adieraztea; agente uniformatuak aurrean baitzituzten pankartak eta horietan helburua idatzita.

imparcialidad requerida para la satisfacción de la imagen de la buena Administración.

4.2 La participación de los agentes de la línea de seguridad en los aplausos iniciados por los concentrados que ejercían el derecho de manifestación supone una conducta contraria al deber de neutralidad en la actuación de la Policía del País Vasco.

De acuerdo con la definición dada por el diccionario RAE, “aplaudir” es, en su primera acepción, dar palmas -palmotear- en señal de aprobación o entusiasmo; y en su segunda acepción, celebrar a alguien o algo con palabras u otras demostraciones. En igual sentido, el Diccionario de uso del español (María Moliner) recoge la acepción de “aplaudir” como alabar o aprobar algo o a alguien.

La concentración de manifestantes que tuvo lugar el 1 de junio de 2023 en el espacio público frente al Parlamento Vasco estuvo presidida por dos pancartas de grandes dimensiones en las que se mostraban los lemas que definían el objetivo de la protesta convocada por la plataforma “Ertzainas en lucha”: “Sin acuerdo regulador digno no hay Tour - Hitzarmen duinik gabe ez dago Tourrik!”, “12 años sin convenio Ertzainas en lucha - Sans convention collective convenible, pas du Tour de France!”.

Resulta plenamente razonable entender que, mediante los aplausos efectuados en los minutos finales de la concentración, los manifestantes expresaban su adhesión a la protesta desarrollada y el sentimiento de alegría que les producía el éxito de la convocatoria. De igual manera, el aplauso dirigido durante un breve lapso de tiempo por los agentes uniformados hacia el grupo de personas que ejercían el derecho de manifestación no pudo tener un significado distinto al de la expresión de la aprobación y alabanza al propio acto de protesta y a la finalidad perseguida por la misma que se reflejaba en el contenido de las pancartas que los agentes uniformados tenían frente a ellos.



Hortaz, guztiz arrazoizkoa da, hedabide gehienetan agente uniformatuak manifestariekin batera txalo egiten ikusita, iritzi publikoak ulertzea agenteek jarrera korporatiboa hartu zutela “Ertzainak borrokan” plataformak deitutako protestaren helburuekin.

Segurtasun-lerroa osatzen zuten zazpi agente uniformatuen jokabide horrek, noski, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren eta manifestarien arteko gatazkan alderdi baten aldeko posizionamendu argia adierazten du.

Herritarren Segurtasunerako Zerbitzuko agenteen posizionamendu hori, gatazkan dauden bi alderdietako batek egindako protestaren helburuaren aldekoa, jardun profesionalean EAEPLTBen 24. artikulua ezartzen duen erabateko neutraltasunaren beharraren aurkakoa da, argi eta garbi. Eta horrek, eremu publiko batean eta gizarte-hedabide askoren aurrean gertatu zenez, eragin negatiboa izan zuen herritarrek jardun polizialaren gaineko kontrolen funtzionamendu egokian duten konfiantzan. Horregatik, Batzorde honek egokitzat jotzen du jokabideari buruz egin den balorazioa, ekintza zigorgarritzat jo baita.

4.3 Tranbiaren zirkulazioa eteteko eta, aldi berean, elkarretaratzea egiteko hasiera batean ezarritako eremua zabaltzeko erabakia jarduketa polizialaren barruko objektibotasun-printzipioarekin bat dator.

Objektibotasun-printzipioak ezartzen du enplegatu publikoen jardunak bat etorri behar duela ordenamenduak erabiltzen den ahalmen zehatzari esleitzen dizkion helburuekin eta, aldi berean, jarduna aurrera eraman behar dela jokoan dauden interes guztiak zehatz ponderatuta, hau da, legeak kasu bakoitzean babesteko agintzen duen interesak (J.A. Santamaria Pastor, Fundamentos de Derecho Administrativo)

Resulta, por ello, de todo punto razonable que en la mayoría de los medios de comunicación la imagen de los agentes uniformados aplaudiendo y uniendo sus aplausos a los tributados por los manifestantes se trasladara a la opinión pública con la connotación de un posicionamiento corporativo de adhesión de los agentes a la finalidad de la protesta convocada por la plataforma “Ertzainas en lucha”.

Esta conducta seguida por los siete agentes uniformados integrantes de la línea de seguridad es, por ello, naturalmente expresiva de un posicionamiento inequívoco a favor de una de las partes en el conflicto mantenido entre los manifestantes y el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco.

El posicionamiento de los agentes del Servicio de Seguridad Ciudadana a favor de la finalidad de la protesta desarrollada por una de las partes en conflicto comporta, por ello, una clara afección al deber de neutralidad absoluta en la actuación profesional que prescribe el art. 24 del TRLPPV. Una afección que, al tener lugar en un espacio público y con una nutrida presencia de medios de comunicación social, produjo un neto impacto negativo en la confianza de la ciudadanía respecto del adecuado funcionamiento de los controles sobre la actividad policial. Por ello, esta Comisión considera adecuada la valoración de la conducta como hecho sancionable.

4.3 La decisión de suspender la circulación del tranvía y, correlativamente, de ampliar el área inicialmente señalada para el desarrollo de la concentración se adecúa al principio de objetividad en la actuación policial.

El principio de objetividad requiere que la actividad desarrollada por las personas empleadas públicas se enderece a los fines que el ordenamiento atribuye a la potestad concreta ejercida y, complementariamente, que la actividad se ejecute mediante una exacta ponderación de todos los intereses en juego que la Ley ordena proteger en cada caso (J.A. Santamaría Pastor, Fundamentos de Derecho Administrativo).



Barne Arazoetarako Burutzak egindako ikerketaren emaitzen arabera, Vitoria-Gasteizko Ertzain-etxeke Buruak erabaki zuen tranbiaren zirkulazioa etetea, egoera manifestarien osotasunerako arriskutsua zelako; gehiegi baitziren espaloiko eremu horretarako. Manifestariak okupatuta zeukaten espaloien parean 10:18an zirkulatu zuten bi tranbia-gidariak hauteman zuten egoera arriskutsua zela.

Horregatik, elkarretaratzearen aurrean pasatzean, tranbiaren zirkulazio-abiadura nabarmen gutxitu zuten eta behin baino gehiagotan tranbia gelditu ere egin zuten. Hori kontuan hartuta, Ertzain-etxeke buruak aurretiko ikerketan deklaratu zuen: "Tranbia hori pasatuta, Unitateko Buru horrek erabaki zuen harrapaketak ekiditeko, beste elkarretaratze handi batzuetan egiten den bezala, tranbiaren zirkulazioa etetea eta elkarretaratutakoei hiriko autobusek eta beste ibilgailu batzuek zirkulatzeko zuten galtzadaraino heltzen uztea; autobus eta beste ibilgailu horien zirkulazioa libre utziz".

Erabaki hori, ikerketaren emaitzaren arabera, Vitoria-Gasteizko Ertzain-etxeke Burutzak hartu zuen, jokoan zeuden interesak ponderatu ondoren, Herritarren Segurtasunerako Unitateko Buruak, Euskotreneko Segurtasun-zaindariak, Legebiltzarreko Segurtasuneko Burutzak eta Ertzaintzaren Arabako Lurralde Buruak adierazitakoak, hain zuzen.

Tranbiaren zirkulazioa Becerro Bengoa kalean eteteko erabakia Ertzain-etxeke Burutzak hartu zuen eta, aldi berean, baimendu zien manifestariei hasiera batean elkarretaratzea egiteko ezarrita zegoen eremutik harago joatea; eta erabaki horiek guztiz bat datoz jardun polizialeko objetibotasun-printzipioarekin.

4.4. Manifestazioa amaitu ondoren, bi agenteren arteko agurra eta besarkada laburra

Atendiendo al resultado de la investigación desarrollada por la Jefatura de Asuntos Internos, la decisión de suspender la circulación del tranvía se adoptó por el Jefe de la Comisaría de la Ertzaintza de Vitoria-Gasteiz, a la vista de la situación de riesgo para la integridad de los manifestantes que, en razón de su alto número, desbordaban la capacidad de uso de la superficie de la acera. Esta situación de riesgo fue detectada por los dos conductores del tranvía que circuló frente a la acera ocupada por los manifestantes a las 10:18 horas. Por ello, durante el tránsito frente a la concentración se redujo muy sensiblemente la velocidad de circulación del tranvía, llegándose a la detención del mismo en varias ocasiones. A la vista de lo cual, se declara en la investigación previa por el Jefe de la Comisaría: "Una vez que pasó este tranvía, este Jefe de Unidad decidió, para evitar accidentes de atropellos y al igual que se realizan con otras grandes concentraciones, cortar la circulación del tranvía y permitir que los concentrados llegaran hasta la calzada por la que circulaban los autobuses urbanos y otros vehículos, dejando libre la circulación de los mismos".

Esta decisión, según revela el resultado de la investigación, fue adoptada por la Jefatura de la Comisaría de Vitoria-Gasteiz, previa la ponderación de los intereses en juego manifestados por el Jefe de la Unidad de Seguridad Ciudadana, el vigilante de seguridad de Euskotren, la Jefatura de Seguridad del Parlamento y el Jefe Territorial de la Ertzaintza de Araba.

La decisión de suspender la circulación del tranvía en la calle Becerro Bengoa adoptada por la Jefatura de la Comisaría y, correlativamente, la autorización para que los manifestantes superaran el área inicialmente señalada para el desarrollo de la concentración fueron plenamente adecuadas al principio de objetividad en la actuación policial.

4.4. El saludo y breve abrazo cruzado, una vez concluida la manifestación, entre uno de los agentes integrantes de la línea de seguridad y uno de los manifestantes no



(bata segurtasun lerrokoa eta bestela manifestaria) ez dira jardun objektiboaren, neutralaren eta inpartzialaren printzipioen aurkakoak.

Gizarte-hedabideek 2023ko ekainaren 1eko manifestazioari buruz argitaratutako irudien artean nabarmenena da topaketa hori islatzen duena, agur bat eta besarkada bat segurtasun-lerroko agente baten eta manifestari baten artekoa. Eszena hori 8D principal bideoan agertzen da. 10:45 minutuan eta manifestazioa amaituta gertatzen da, manifestarietako bat protesta-ekitaldietan buru izan den pankarta biltzen ari den bitartean.

Agentearen jokabidea Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen eredu polizialaren ikuspegitik aztertu behar da, eta eredu polizial horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko sistema poliziala gizarte-inbrikatzearen eta aldi berean herritarrei kontuak ematearen esparruan finkatzen laguntzea.

Legezko eredu horren barruan lehentasunezkoak dira herritarrak honelako estrategia baten protagonistatzat hartzen dituzten ikuspegiak: delituaren prebentziozko estrategia eta konfiantza-harremana sustatuz segurtasunaren pertzepziora bideratutako estrategia.

Esparru horretan, ulertzen dugu eraikin instituzionala zaindu behar zuen polizia-agente batek errebindikazioa-manifestazioa amaitutakoan kidego bereko lankide bat besarkatzeak, nahiz eta objektiboki keinu hori bidezkoa ez izan, ez zuela “Ertzaintzaren irudia” kaltetzen.

5. Prebentziozko neurrien proposamena

Aztertutako alderdiak eta aurreko ataletan egindako balorazioak kontuan hartuta, Batzorde honek, jarduketa polizialaren gaineko kontrolak hobetzeko, ildo hauek proposatu nahi ditu:

5.1 Komeni da EAEPLTBen Kode Deontologikoko betebeharrei jaramonik ez

constituye una conducta contraria al principio de actuación objetiva, neutral e imparcial.

Entre las imágenes publicadas en los medios de comunicación con ocasión de la manifestación desarrollada el día 1 de junio de 2023, destaca la que reproduce el encuentro, mediado de un saludo y un abrazo, entre uno de los agentes integrantes de la línea de seguridad y uno de los manifestantes. La escena, recogida en el video 8D. Principal, minuto 10:45, tiene lugar una vez concluida la manifestación cuando uno de los manifestantes se encuentra enrollando la pancarta que ha presidido el acto de protesta.

La conducta del agente debe analizarse en relación con el modelo policial al que responde la Ley de Policía del País Vasco, que se propone contribuir a la consolidación del sistema de policía del País Vasco en el terreno de su imbricación social y del correlativo deber de rendir cuentas a la ciudadanía.

En este modelo legal priman las perspectivas que incluyen a la ciudadanía como protagonista de una estrategia esencialmente preventiva del delito y orientada a la percepción de seguridad mediante el fomento de una relación de confianza con aquella.

En este marco, el abrazo de un agente de policía responsable de la custodia de un edificio institucional a un compañero del mismo cuerpo al final de una manifestación reivindicativa, a pesar de la objetiva improcedencia del gesto, entendemos que no llega a menoscabar la “imagen de la Ertzaintza”.

5. Propuesta de medidas preventivas

A la vista de las cuestiones analizadas y las valoraciones realizadas en los apartados anteriores, esta Comisión propone las siguientes líneas de mejora en los controles de la actividad policial:

5.1 Conveniencia de incluir taxativamente la desatención de las obligaciones del Código Deontológico del TRLPPV en la falta



egitea zehazki sartzea “arduragabekeria betebeharrak betetzean” diziplina-faltaren barruan.

“Diccionario panhispánico del español jurídico” hiztegian “negligencia” (arduragabekeria) honela definitzen da (euskaratuta): Norberari dagozkion betebeharrak jaramonik eza edo erregelak eta arauak betetzean ardurarik eza, baina iruzur egiteko asmorik gabe, hau da, egin beharreko ekintza atzeratzeko edo ez egiteko zuzeneko borondaterik gabe; baizik eta erruzko inertiaren edo arreta faltaren ondorioz.

Definizio horretako elementu – objektiboak eta subjektiboak- bat ere ez dago jasota zehazki “arduragabekeria betebeharrak betetzean” diziplina-faltaren tipifikazioaren barruan; eta falta hori indarrean dagoen Euskal Herriko Polizia Kidegoen Disziplinazko Araudia onartzen duen maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuaren 10.3 artikuluan jasota dago.

Hori dela eta, ziurtasun penalaren printzipioari begiratuta, komeni da arau hori aldatzea, “arduragabekeria betebeharrak betetzean” diziplina-tipoaren deskribapenaren barruan iruzur egiteko borondaterik eza sartzeko, baita, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Kode Deontologikoak ezarritako betebeharrak eta printzipioei jaramonik ez egitea eta eginkizunak arautzen dituzten printzipioak, arauak eta erregelak betetzean ardurarik eza ere.

5.2 Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kode Deontologikoaren eta Poliziaren Etikaren Kode Europarraren barruko arau eta printzipioei buruzko prestakuntza poliziala sendotzea, hasierakoa zein jarraia.

“Ertzainak borrokan” plataformaren protestan zehar segurtasun-lerroa osatu zuten Herritarren Segurtasunerako Zerbitzuko zazpi agenteek txalo egitea gorputz adierazpenean autolimitazioarako betebeharraren aurkako jokabidetzat har daiteke, eta betebeharrak hori betetzea nahitaezkoa da eginkizunak esparru publikoetan aurrera eramatean neutraltasun-printzipioari jarraitzeko. Neutraltasun hori urratzen da eginkizun polizialak garatzean jarrera hartzen dutenean, zalantzarik

disciplinaria de “negligencia en el cumplimiento de las obligaciones”.

El Diccionario panhispánico del español jurídico define la “negligencia” como: “Desatención de las propias obligaciones o descuido en el cumplimiento de las reglas y normas, sin que medie una intención dolorosa, es decir, una directa voluntad de omitir o retardar la acción debida, pues se trata, más bien, de una situación de culposa, inercia y falta de cuidado”.

Ninguno de los elementos -objetivo y subjetivo- de esta definición se recogen de forma taxativa en la tipificación de la falta disciplinaria de “negligencia en el cumplimiento de las funciones”, recogida en el vigente, Reglamento de régimen disciplinario de los cuerpos de la policía del País Vasco -art. 10.3 del Decreto 170/1994, de 3 de mayo-.

El principio de certeza penal aconseja, por ello, la modificación de dicho precepto, a fin de que en la descripción del tipo disciplinario de “negligencia en el cumplimiento de las funciones” se incluya tanto la ausencia de voluntad dolosa, como la referencia, expresa a los supuestos de descuido en el cumplimiento de los principios, reglas y normas reguladoras de las funciones y de desatención de las obligaciones y principios dispuestos por el Código Deontológico de la Policía del País Vasco.

5.2 Reforzar la formación policial, inicial y continua, sobre los principios y reglas, incluidas en el Código Deontológico de la Policía del País Vasco y en el Código Europeo de Ética de la Policía.

Los aplausos tributados por los siete agentes del servicio de seguridad ciudadana, que conformaron la línea de seguridad durante la protesta desarrollada por la plataforma “Ertzainas en lucha”, pueden tenerse como una práctica contraria al deber de autolimitación en la expresión corporal requerido para atender al principio de neutralidad en la ejecución de las funciones desarrolladas en los espacios públicos. Esa neutralidad se quiebra cuando, en el desarrollo de las funciones policiales, se ofrece un



gabe manifestariak eskatzen zituzten interes profesionalen eta korporatiboen aldekoa eta jarduketa polizial horrek zerbitzu ematen dien herritarren interes orokorren kaltetan.

Gure ustez, jokabide hori prebenitu ahal da, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kode Deontologikoaren eta Poliziaren Etikaren Kode Europarraren barruko arau eta printzipioei buruzko prestakuntza poliziala sendotuz, hasierakoa zein jarraia.

Eta hala jasota gera dadin, ZIURTAGIRI hau ematen du Batzordeko idazkariak, sinadura digitalaren datan.

posicionamiento inequívocamente alineado en la defensa de los intereses profesionales o corporativos, reclamados por los manifestantes y en detrimento, de la satisfacción de los intereses generales de la ciudadanía a los que sirve la concreta actuación policial.

Entendemos que esta conducta puede prevenirse, mediante el refuerzo de la formación policial, inicial y continua, sobre los principios y reglas, incluidos en el Código Deontológico de la Policía del País Vasco y en el Código Europeo de Ética de la Policía.

Y, para que así conste se expide la presente CERTIFICACIÓN, por el Secretario de la Comisión, en la fecha indicada en la firma digital.